

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 346/2024 Foru Agindua, ekainaren 10ekoa. Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 92.ter artikuluan xedatutako baldintzak betetzen dituzten zerga zor edo zehapenengatik Arabako Foru Ogasunarekin zorrak dituztenen zerrenda argitaratzeko data eta zerrenda horien fitxategi eta erregistroak zehazten dituena

Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 92.ter artikulua, 2023. urterako zerga neurriei buruzko 24/2022 Foru Arauak idazkera berriaren arabera, Zerga Administrazioari honako betebeharrak ezartzen dio: urte bakoitzeko lehen seihilekoan Arabako Foru Ogasunari zordunen zerrenda argitaratzea, zerga zorren edo zerga zehapenen erantzule solidario deklaratuak izan direlako zordun direnak barne, honako inguruabar hauek gertatzen direnean:

a) Ordaintzeko dauden zerga zorren eta zehapenen zenbateko osoa, betiere erantzukizun solidarioa aitortu ondoren eskatutakoak barne, 600.000,00 eurotik gorakoa izatea.

b) Zerga zor edo zerga zehapen horiek ez ordaintzea borondatez ordaintzeko epealdian.

Erantzukizun solidarioa adierazteko erabakian sartutako zorren kasuan, beharrezkoa izango da borondatez ordaintzeko epealdia igarotzea, erantzukizuna adierazteko erabakia eta, bidezkoa denean, ordainketa eskatzeko erabakia jakinarazi ondoren.

Zerrendan sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen diren zehazteko 2023ko abenduaren 31 hartu da erreferentzia datatzat.

2023. urterako zerga neurriei buruzko 24/2022 Foru Arauak idazkera berriaren arabera, Arabako zergen 6/2005 Foru Arau Orokorraren 92.ter artikulua 4. apartatuak dio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez ezarriko direla argitalpen data zehatza eta argitaratu beharreko fitxategi eta erregistroen datu teknikoak. Argitalpena beti egin beharko da urte bakoitzeko lehen sei hilabeteen barruan.

Aipatutako 92 ter artikulua 4. apartatuan ezarritako alde zehatzeko izapideak bete ondoren, foru agindu hau ematen da beronen bitartez zehazteko noiz argitaratu den Arabako zergen Foru Arau Orokorraren 92.ter artikuluko zerga zor eta zehapenengatik 2023ko abenduaren 31n Arabako Foru Ogasunaren zordun direnen zerrenda eta dagozkion fitxategi eta erregistroak.

Horiek horrela,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zerrenda argitaratzeko data

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 92 ter artikulua 1. apartatuan xedatutako baldintzak betetzen dituzten zerga zor edo zehapenengatik Arabako Foru Ogasunarekin zorrak dauzkaten eta erreferentzia datatzat 2023ko abenduaren 31 duen zerrenda 2024ko ekainaren 28an argitaratuko da, Arabako Foru Aldundiaren webgunean (<http://www.araba.eus>).

Bigarrena. Zerrenda prestatzeko erabilitako fitxategi eta erregistroen zehaztapena

Zerga zor edo zehapenengatik Arabako Foru Ogasunarekin zorrak dauzkatenen eta aurreko apartatuan aipatu den zerrenda prestatzeko erabiliko dira 2023eko abenduaren 31n Arabako Foru Aldundiaren informazio sistemetan ordaindu gabe ageri diren zor eta zehapenen datuak, zor eta zehapen horiek etenda edo geroratu ez badaude.

Ez da kontuan hartuko zerrendan identifikatutako zergapekoek zerrenda argitaratzen den egunean benetan zor duten kopurua, ordainketa aipatutako 92 ter artikuluko 4. apartatuan adierazitako kasuetan eta betekizunekin egiaztatzen ez bada.

Zerrenda horretan beharrezko eremuak agertuko dira datu hauek identifikatzeko: argitaratzen den informazioarekin lotuta dagoen zorduna (izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, pertsona fisikoa bada, eta sozietate izena, osorik idatzita, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, pertsona juridikoa edo Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluko entitatea izanez gero), eta zor eta zehapenen zenbateko osoa erreferentzia datan, daturik banakatu gabe.

Zerrenda bitarteko elektronikoak erabiliz argitaratuko da, Portable Document Format edo PDF formatuan eta, teknikaren egoera aintzat hartuta, hartu beharreko neurriak hartuko dira edukia Interneteko bilaketa motorren bitartez indexatzea galarazteko, betiere ziurtatuta argitaratu eta hiru hilabetera zerrendak ez direla eskuragarri izango, Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 92.ter artikulua betez.

Ogasun zuzendariari dagokio ematea Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 92 ter artikuluan 1. apartatuan xedatutako baldintzak betetzen dituzten zerga zor edo zehapenengatik Arabako Foru Ogasunarekin 2023eko abenduaren 31ko erreferentzia datan zorrak dauzkatenen zerrenda argitaratzeko erabakia.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 10a

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA